

## Fantastikoa da errealitatea

**B**ehinola, Julio Cortazarrek kontatu zigun bere lehen ipuinak idatzi zitueanean konturatu zela idatzitako guztiak fantastikoa deitzen dugun generokoak zirela. Kasualitate baino kausalitate horren inguruan bueltaka, bere buruari galdezka hasi zen berak fantastikoari buruz zeukan ideia eta besteek zeukatena berdina ote zen. Gogora ekarri zuen (eta, besteak beste, *La vuelta al día en ochenta mundosen* islatu zuen) txikitzen gauza fantastikoei buruzko bere ustea eta beste haurrena ezberdina zela. Bere inguruko artean mota horretako literatura arbuaiatu beharreko zerbait zen, ez omen zeukalako errealitatearekin harremanik.

Antza denez, behin lagun bati liburu bat utzi zion eta lagunak «Ezin dut irakurri. Fantastikoezia da» esanez itzuli zion. Ez zerurako ez lurrerako gelditu zen. Eta zera ondorioztatu zuen: beretzat «fantastikoa» ez zen jendeak fantastikotzat zeukana; errealitatearen forma edo aldaera bat zen, batzuetan liburuen edo gertaeren bidez aditzera ematen zitzaiona. Labur esanda Cortazarrek azaltzen zuen berak «errealitate handiago bat» onartzen zuela, «elastikoagoa, hedatuagoa, non dena sartzen zen». Gustatzen zaigu, gustatzen zaigunez Julioren azalpena (izan ere, hainbeste maite dugu Julio!) eta pentsatu nahi dugu errealitatea edo fantastikoa deritzo-

gun hori egunerokotasunaren aldaera bat izan daitekeela, gure inguruan sortu daitezkeen ezustekoei zabalik bagaude.

Hala, bada, Cortazarren ipuin «fantastikoak» bezala, Jon Bilbaoren *Kometaren eraginpean* liburukoak egunerokotasunaren aldaera bati zabalik daude eta, behar bada, garai bateko argentinarraren lagunek bueltan ekarriko ez bazituzten ere, gogora ekartzen digute beharrezkoa dugula edo gutxienez ederra dela errealitate handiago, elastikoago, hedatuago bat onartzea. Horregatik, liburu honetan, asaldatzea egunerokotasunetik dator, azalekotik. Auzokideen bizitza zelatatzea norberaren errutina hankaz gora jartzera etor

 Mikel Soto

daitekeen mehatxua da. Landako babesa arduragarri izaten amaitu daiteke azeri batekin harremana hasten baduzu. Itsasertzean baratutako bale batek hondartzara egindako txangoa hondatu dezake. Eta kometa baten igarotzeak gure bizitzaren ongizatea hankaz gora jar dezake.

Bizitzan bezala, pertsonaiek, ezustean, haien barruan dagoenarekin topo egin behar dute aurrera jotzeko. Batzuetan guri gertatzen zaigun bezala, haien baitan aurkitzen duten horrek asaldatzen eta beldurtzen ditu, giza-jitearen parterik ilunena islatzen duelako. Beste batzuetan, aldiz –errealitatearekin Juliori gertatu

bezala–, kausitzen dutena ohikotzat jotzen dugun jokabidearen aldaera bat besterik ez da. Hala, bada, era batera edo bestera, kateatuta gelditzen dira haien egunerokotasuna orpotik ateratzera etorri den gertakizun horri. Halaber, irakurlea kateatuta gelditzen da narrazioak bere baitan sortzen dituen oihartzunetara.

Ipuinak maisutasunez idatzita daude; hitz bakoitza, esaldi bakoitza zaindua dago, apurka apurka irakurtzen ari garena baino zerbait gehiago irakurtzen ari garela senti dezagun. Esaldi eta paragrafoek, ohartzeko, tentsioak eta intentsitateak gora egin dezan hurrenkeran jarrita

daude. Jon Bilbaoren idazketa gure subkontzientean dauden elementuekin bat egiten saiatzen da, une batean malgukiak salto egin dezan eta konturatu gaitetzen irakurtzen ari garenak dagoeneko utzi diola irakurketa xalo bat izateari. Ateak zabaldu dira eta halako batean hor daude txikitatik gurekin dauden beldurrak, egunerokotasunak ezabatzen ez dituen deserosotasun sentsazio horiek.

Hona zortzi ipuin disfrutatzeko, aztoratzeko eta, batez ere, errealitatea sarri aitortzen duguna baino handiagoa, elastikoagoa eta hedatuagoa dela oroitzeko. Eta bertan dena sartzen dela sentitzeko.\*

abendua

liburu gomendatua

## Jon Bilbao

# KOMETAREN ERAGINPEAN

Liburu honetan, asaldatzea egunerokotasunetik dator, azalekotik. Auzokideen bizitza zelatatzea norberaren errutina hankaz gora jartzera etor daitekeen mehatxua da. Landako babesa arduragarri izaten amaitu daiteke azeri batekin harremana hasten baduzu. Itsasertzean baratutako bale batek hondartzara egindako txangoa hondatu dezake. Eta kometa baten igarotzeak gure bizitzaren ongizatea hankaz gora jar dezake.

Bizitzan bezala, pertsonaiek, ezustean, haien baitan dagoenarekin topo egin behar dute aurrera jotzeko eta, era batera edo bestera, kateatuta gelditzen dira haien egunerokotasuna orpotik ateratzera etorri den gertakizunera. Halaber, irakurlea kateatuta gelditzen da narrazioak bere baitan sortzen dituen oihartzunetara.

Aldaketa  
azaroaren  
25a  
baino lehen



0505031 TXALAPARTA

NARRATIBA

336 or.

Salneurria 18,50€

Bazkideak 14,80€

Itzultzailea: Jon Alonso

EGILEA



Jon Bilbao Ribadesellan jaio zen, 1972an. Meatzetako ingeniari eta Ingeles filologian lizentziatua, gaur egun idazteaz bizi da. 2005ean *Ficciones* lan kolektiboan parte hartu zuen eta 2006an Asturias Joven saria irabazi zuen *3 relatos* liburuagatik. 2008an *El hermano de las moscas* eleberria argitaratu zuen eta urte berean *Como una historia de terror* ipuin liburua, zeinarekin Ojo crítico de Narrativa saria irabazi zuen. 2010ean eskuartean daukazu *Bajo el influjo del cometa* ipuin liburua argitaratu zuen eta Trigre Juan eta Euskadi Literatura Saria irabazi zituen. Bere azken liburuak *Shakespeare y la ballena blanca* eta *Física familiar* dira.